



INNOBASQUEko HIZKUNTZA POLITIKA OROKORRA

2016ko azaroa

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	3
2.- HELBURUAK.....	3
2.1.- Helburu nagusia:	3
2.2.- Zeharkako helburuak:.....	3
3.- IKUSPEGIA.....	4
3.1.- Indarguneak:.....	4
3.2.- Ahuleziak:	5
4.- KUDEAKETA EGITURA.....	5
5.- PLANA GARATZEKO EGITURA.	5
5.1.- Planaren koordinatzailea.....	5
5.2.- Hizkuntza batzordea.....	6
5.3.- Lantaldeak:	6
6.- PLANAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA.	7
6.1.- Planaren segimendua (etengabea):	7
6.2.- Ebaluazioa (planaren garapena bukatu ondoren).....	7
7.- IRIZPIDEEN NEURRIAK ETA KRONOGRAMA.....	7

1.- SARRERA

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia 2007an sortu zen, berrikuntzaren bidez Euskadiren gizarte eta ekonomia eraldaketa-prozesua bultzatzeko, dinamizatzeko eta monitorizatzeko eremu guztietan.

Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da, aliantza publiko-pribatua, lankidetzeta plataforma eta sare indartsua, gizarte zibila, enpresak, zientzia eta teknologia eragileak eta Administrazioa batzen dituena. Helburua da Euskadirentzat nahi den etorkizunik onena elkarrekin eraikitzea eta euskal gizarte osoaren egungo eta etorkizuneko bizi-kalitatea hobetzea.

Innobasquen 1.000 erakunde, bai publikoak bai pribatuak, bazkide dira. Erakunde publikoen artean, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta hainbat udal daude.

Innobasque Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren euskal kontseiluko, Euskal Jaurlaritza Lehendakaria buru duela, kidea da eta bere idazkaritza tekniko gisa dihardu.

Innobasquek kanpora begira duen proiektzio eta interes orokorraren aldeko jarduera ikusita eta Innobasque zer den kontuan hartuta ere, garrantzitsua da Plan bat diseinatzea, martxan jartzea eta eragitea, bai barruan eta bai kanpoan euskara sustatzeko.

Horregatik, zuzendaritza-batzordeak 2016an lantalde bat sortzea onartu zuen Plana aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plan nagusiarekin (ESEP) bat egiteko.

2.- HELBURUAK

2.1.- Helburu nagusia:

- Hizkuntza ofizialak eraginkortasunez kudeatu, Innobasquek eskaintzen duen zerbitzua solaskideak nahi duen hizkuntzan jaso ahal izan dezan.

2.2.- Zeharkako helburuak:

- Helburu nagusiarekin koherentzia izango duen Hizkuntza-politika diseinatu eta aplikatu.
- Euskararen erabilera gehitu erakundeko pertsonen arteko harremanetan.
- Innobasquerekin harremanak euskaraz izatera bultzatuko duen kanpo -irudia zabaldu.
- *Bikain* kalitate zihurtagiria lortu.

Euskara eta euskararen erabilera hainbat legek arautzen dute:

- 1978ko Espainiako Konstituzioaren 3. Artikulua:
 - ✓ “Espainiako gainerako hizkuntzak ofizialak izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan, Estatutuen arabera.”
- 1979ko Euskadiko Autonomía Estatutuaren 6. Artikulua:
 - ✓ “Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza.”
 - ✓ “Euskarak hizkuntza ofizialaren maila izango du Euskadin gaztelaniarekin batera.”
 - ✓ “Guztiok dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.”
- 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen erabilpena araukotzekoa.

Lege honek jasotzen ditu Euskal Herriko herritarrei aitortzen zaizkien oinarrizko eskubideak:

- ✓ Arduralaritzarekin eta Autonomía-Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- ✓ Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- ✓ Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskeraz jasotzeko eskubidea.
- ✓ Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritarazko ekintzetan euskeraz aritzeko eskubidea.
- ✓ Edozein bilkuratan euskeraz egiteko eskubidea.
- Eusko Jaurlaritzaren antzineko Industria, Merkataritza eta Turismo Zerbitzuak erredaktatutako Erabiltzaile eta Kontsumitzaileen Estatuaren Legea:
 - ✓ Autonomia erkidegoaren lurraldeetan (CAV) ari diren empresa eta establezimenduak bi hizkuntza ofizialetan atenditzeko prestatuak egon behar dutela dio.
- Eskualde-mailako edo Gutxiengoaren hizkuntzen Europako Karta:

Helburu eta oinarrien artean hauek nabarmentzen dira:

 - ✓ Gutxiengoaren hizkuntzak babesteko ekimenen beharra.
 - ✓ Bizitza Publikoan eta pribatuan gutxiengoaren hizkuntzak ahozko eta idatzizko erabilera sustatzea eta erraztea.

Horrez gain espreski aipatzen du gutxiengoaren alde hartutako neurri bereziak Ez direla hizkuntza hedatuenean hiztunenganako diskriminazio-ekintzat hartuko.
- Euskararen Aholku Batzordearen “Euskara 21. Itun Berritu Baterantz” izenburudun liburuan jasotako XXI.mende hasierako hizkuntza politikaren lehentasunezko ildoak. Ondoren, Batzordeak euskararen erabilera areagotzea xede duen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu zuen.

Plan hori, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak 2012ko uztailaren 24an onartu zuen eta Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n berretsi zuen.

Ekintza plan horrek “Itun Berritu Baterantz” dokumentuan bildutako lehentasunezko ildoak neurri zehatzez mamitu eta praktikara eramateko moduan egokitu ditu.

3.- IKUSPEGIA.

Innobasquen, egungo egoera aztertu ondoren indargune eta ahulezi hauek azpimarratu dira:

3.1.- Indarguneak:

- Euskara-maila ertaina duten pertsonen erraz hobetu dezakete
- Euskara-maila nahiko ona da oro har
- Innobasqueko pertsonen egoera aldatzeko goga azaldu dute
- Zuzendaritza inplikaturik dago Euskararen gaian

- Hizkuntza ohitura aldatzea falta zaigu, erraz alda dezakegu
- Gai asko daude kostu handirik gabe alda daitezkeenak
- Merkatuan gero eta jende gehiagok eskutzen du euskara dakien interlokutorea
- Bezero batek zerbitzua euskaraz nahi badu, erantzun dezakegu

3.2.- Ahuleziak:

- Innobasqueko pertsonen % 44k euskara maila oso baxua dute
- Maila baxua duten pertsonen zaila egingo zaie behar den maila lortzea
- Zuzendaritzako pertsona gehienek ez dakite euskara.
- Hizkuntza politikarik ez dugu.
- Ez zaie emaitzarik eskatzen euskara ikasten ari direnei
- Diru gabeziak zailtazunak sortzen dizkigu dokumentazioa euskaraz argitaratzeko.
- Taldean nahikoa da pertsona bakarrak ez ulertzea denok gaztelaniaz aritzeko.

4.- KUDEAKETA EGITURA.

- Irudi Korporatiboa eta Komunikazioa
- Kanpo harremanak
- Barne harremanak
- Hizkuntzen kudeaketa

5.- PLANA GARATZEKO EGITURA.

Ezarritako helburuak aurrera atera ahal izateko eta Plana bere osotasunean garatu ahal izateko, beharrezkoa da pertsonen zein zeregin duten jakitea eta behar dituzten baliabideak eskura izatea. Jarraian, Hizkuntza Planaren izan egitura eta egitura bakoitzaren bete funtzioak agertzen dira:

5.1.- Planaren koordinatzailea

5.1.1.- Perfila:

- Erakundearen ezagutza sakona izango duen pertsona
- Lidertzarako gaitasuna izango duena
- Erabakitze ahalmena izango duena
- Planari denbora eskeintzeko tartea izango duena

5.1.2.- Funtzioak:

- Plana bere osotasunean koordinatu eta zuzendu
- Plana garatzeko behar den informazioa jaso eta trukatu
- Proiektuaren segimendua egin eta sor daitezkeen arazoei interbidea eman.

- Lankideek izan ditzateken galdera eta zalantzak argitu
- Prozesuaren eta lortutako emaitzen balorazioa egin
- Urteko kudeaketa plana egin eta Hizkuntza batzordearekin batera

5.1.3.- Funtzionatzeko era:

- Hizkuntza plana garatzeko behar diren dedikazioa eta funtzioak esleitu behar zaizkio

5.2.- Hizkuntza batzordea

5.2.1.- Parte-hartzaileak eta perfila:

- Lantaldea (gehienez 4/5 pertsona)
- Erakunde osoko ordezkari (zuzendaritza, giza baliabideak, informatika, gizonak, emakumeak...)

5.2.2.- Funtzioak:

- Proiektua koordinatu eta zuzendu
- Hizkuntza planean jasotzen diren ekintzak gauzatu
- Planaren segimendua egin eta sor daitezkeen arazoei irtenbide eman
- Prozesuaren eta emaitzen balorazioa egin

5.2.3.- Funtzionatzeko era:

- Hilean behin elkartuko da

5.3.- Lantaldeak:

5.3.1.- Parte-hartzaileak eta perfila:

- Lantaldea (2-4 pertsona)
- Esleitutako lanarekin lotura zuzena duten pertsonak.
- Lantaldeak: sentsibilizazioa eta motibazioa, aplikazio informatikoak, harrerak, hornitzaileak,...

5.3.2.- Funtzioak:

- Planetik eratorritako lana egin.
- Planaren inplementazioa eta sor daitezkeen arazoi irtenbidea eman.
- Prozesuaren eta emaitzen balorazioa egin.

5.3.3.- Funtzionatzeko era:

- Esleitutako funtzioak irauten duen arteko iraupena. Esleitutako lana amaitutakoan lantaldea desegin egingo da.

6.- PLANAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA.

Planaren segimendurako eta ebaluaziorako tresnak ezartzea behar beharrezkoa da, horrela Planaren garapena behar bezela gauzatzen ari dela egiaztatu ahal izango da. Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteak ezarritako helburuen betetze maila ikuskatzeko aukera emango digu, bai lortu ez ditugun helburuak bideratzeko neurriak ezartzeko edota etorkizunera begirako helburu berriak ezartzeko ere.

Ebaluazioari esker, ezarritako helburu orokorrera zenbateraino hurbildu garen, zein erritmotan eta zenbateko gastua egin dugun jakiteko aukera izango dugu. Horrela, eta beharrezkoa izanez gero, Plana egokitzeko aukera izango dugu.

6.1.- Planaren segimendua (etengabea):

Planaren segimendua egiteak Plana nola ari garen garatzen ikusteko aukera ematen digu. Segimendua egiteko bideratu ditugun ekintzetan zentratuko gara. Horrela, ekintzok nola ari diren gauzatzen aztertuko dugu eta hasieran ezarritako helburuak lortzeko bidean lagundu diguten edo ez jakingo dugu.

- Planaren eta Hizkuntza batzordearen ardura izango duen pertsona izango da kronograman jasotako ekintzen segimendu jarraituaz arduratuko dena.
- Urtean behin segimenduaren txostena aztertuko da (2016ko, 2017ko eta 2018ko abendua). Bertan egindako lanak, egiteke duadenak eta bertan behera gelditu direnak jasoko dira.

Segimendua egiterakoan behar-beharrezkoa da ondorengo gai hauek kontuan izatea:

- Abian jarri ditugun ekintzak lagundu digute, edo lagunduko digute, Planaren helburu nagusia lortzen?
- Nahikoak al dira ezarri ditugun baliabideak adostutako ekintzak martxan jartzeko?
- Lortutako emaitzek egindako inbertsioak justifikatzen dituzte?
- Egin ditugun ekintzak arrakastatsuak izan dira?
- Zenbat pertsonak (gizon eta emakume) hartu du parte prozesuan?

6.2.- Ebaluazioa (planaren garapena bukatu ondoren).

Ebaluazioak Plana zein egoeratan dagoen, ikusteko aukera emango digu. Azterketa egiteko, jarraian datorren informazioa erabiliko da:

- Segimenduaren bidez ateratako ondorioak (urteroko kudeaketa-planaren segimendua)
- Langileen iritzia eta pertzepzio subjektiboak (galdetegi baten bidez jaso daitezke).

Hizkuntza Planaren garapena amaitu ondoren, Plan horretan jasotako helburuen betetze maila ebaluatuko da. Ebaluazio hori txosten batean jasoko da.

7.- IRIZPIDEEN NEURRIAK ETA KRONOGRAMA.

Jarraian, Innobasque taldearen hizkuntza politikan ezarritako irizpideen neurriak eta kronograma agertzen dira.

7.1. Helburuak eta neurriak

1. IRUDI KORPORATIBOA ETA KOMUNIKAZIOA

1.1. PAISAIA LINGUISTIKOA ETA IRUDI KORPORATIBOA			
HELBURUA: Tratamendu bera ematea euskarari eta gaztelaniari.			
ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
1.1.1. Kanpo errotulazio finkoa	<ul style="list-style-type: none"> Erakundearen izenaz gain beste legenda bat jartzen bada, euskarari lehentasuna eman 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Markan euskarak duen pisuaren ehunekoa
1.1.2. Harrera-lekuko eta barne-bulego/sailetakoko errotulazio finkoa	<ul style="list-style-type: none"> Euskarari lehentasuna eman: ikonoak euskarazko testuarekin 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Euskarari lehentasuna eman zaion errotuluen ehunekoa
1.1.3. Papertegia, zigiluak eta bisita-txartelak	<ul style="list-style-type: none"> Innobasqueren papertegi guztian euskaraz jasoko da helbidea: Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Laida Bidea, 203 48170 Zamudio (Bizkaia) Tel.: (34) 944 209 488 Zigiluak bi hizkuntzatan izango dira, eta bakarrean izatekotan, euskara hutsean. Bisita-txartelak: <ul style="list-style-type: none"> Kargua: hiru hizkuntzatan Helbideak eta beste, euskaraz Bisita txarteletan ezin da euskara kendu 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria	<ul style="list-style-type: none"> Helbidea euskaraz agertzen den papertegiaren ehunekoa Bi hizkuntzatan edo euskaraz dauden zigiluen ehunekoa Bisita-txartelen hizkuntza nola dagoen

1.1. PAISAIA LINGUISTIKOA ETA IRUDI KORPORATIBOA
HELBURUA: Tratamendu bera ematea euskarari eta gaztelaniari.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
1.1.4. Webgunea eta sare sozialak	<ul style="list-style-type: none"> • Webgunearen eduki guztiak bi hizkuntzatan argitaratuko dira eta une berean argitara daitezen bideak ezarriko dira. • Webgunera lehen aldiz jotzen denean erabiltzaileak bere nabigatzaileak lehenetsitako hizkuntzan ikusiko du. • Erabiltzaileak hizkuntza hautatu ondoren, hura identifikatu eta ondorego bisitetan azken aldian erabilitako hizkuntzan ikusiko du webgunea. • Sare sozialetan erabiltzen dugun euskararen proportzioa gehitzen joatea eta euskaraz hedatutako gaien aniztasuna bermatzea 	CONTENT taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Webgunera euskaraz egindako bisiten ehunekoa. • Euskararen presentziaren ehunekoa webgunean • Euskararen kalitatea webgunean • Sare sozialetan argitaratutako euskararen ehunekoa • Euskararen kalitatea sare sozialetan
1.1.8. Marketina eta publizitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Bi hizkuntzatan egingo da beti, euskarari lehentasuna emanez. • Euskarazko komunikabideetan euskara hutsean egingo da publizitatea 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako iragarkietan euskararen presentziaren ehunekoa • Kanpaina bakoitzean euskarak duen pisuaren ehunekoa
1.1.9. Irudi korporatiboaren osagaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Irudi korporatiboaren eskuliburuan hizkuntza irizpideak jasoko dira euskarari lehentasuna emateko 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskuliburuan irizpidea txertatu den

1.2. HARRERA

HELBURUA: Euskarazko harrera lehenetsi.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
1.2.1. Harrera telefonikoa	Lehen agurra euskaraz egingo da beti, ondoren solaskideak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da.	Harreragilea	<ul style="list-style-type: none"> • Telefonoan euskaraz egin diren elkarrizketen ehunekoa
1.2.2. Aurrez aurreko harrera	Lehen agurra euskaraz egingo da beti, ondoren solaskideak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da.	Harreragilea	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurre izan diren harreretan euskararen ehunekoa
1.2.3. Telefono deiak beste norbaiti zuzentzea	Deia Innobasque barruko pertsona bati pasatzen zaionean kanpoko solaskideak zein hizkuntza aukeratu duen jakinaraziko zaio Innobasque barruko hartzaileri.	Harreragilea	<ul style="list-style-type: none"> • Innobasqueko solaskideak euskaraz jarraitu duen ehunekoa
1.2.4. Harrera automatizatua: erantzugailu automatikoa	Erantzugailu automatikoko mezuetan aurrena euskarazko mezua esango da eta ondoren gaztelaniazkoa	Harreragilea	<ul style="list-style-type: none"> • Irizpidea betetzen den

2. KANPO-HARREMANAK

2.1. BAZKIDEAK			
HELBURUA: Bazkideei hizkuntza hautatzeko aukera eman Innobasque kiko harremanetan			
ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
2.1.1. Ahozko harremanak (bazkideak)	<ul style="list-style-type: none"> Harremana euskaraz nahi duten bazkideen datuak jasotzea. Harremana euskaraz nahi duten bazkideei erantzuteko bideak lantzea. (epe laburrera, epe luzera) 	Bazkide-taldea	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroekin egindako elkarrizketen ehunekoa
2.1.2. Idatzizko harreman ofizialak(bazkideak)	<ul style="list-style-type: none"> Txekeatu dokumentazio guztia eta irizpideak betetzen direla bermatu. Dokumentazio ofizial guztia euskaraz eta gaztelaniaz entregatuko da euskarari lehentasuna emanez. 	Bazkide-taldea	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroei euskaraz entregatutako dokumentazioaren ehunekoa
2.1.3. Idatzizko harreman ez ofizialak(bazkideak) (e-mailak, ...)	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroari galdetu egingo zaio zein hizkuntzatan nahi duen harremana izatea. Harremana euskaraz nahi duten bazkideei erantzuteko bideak lantzea. (epe laburrera, epe luzera) 	Bazkide-taldea	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroei euskaraz entregatutako dokumentazioaren ehunekoa

2.2. ZERBITZUA

HELBURUA: Aukeratutako hizkuntzan eskaini zerbitzu osoa

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
2.2.1. Ahozko harremanak (zerbitzua)	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzua euskaraz eman ahal den kasuetan bezeroari galdetu egingo zaio zerbitzua zein hizkuntzatan jaso nahi duen. Zerbitzua euskaraz jasotzeko dagoen eskariaren inguruko informazioa jasotzeko bideak aztertu. Zerbitzua kasu guztietan euskaraz eman ahal izateko bideak jorratuko ditugu. Zerbitzua euskaraz jaso nahi duten erakundeen erregistroa sortuko da. (CRM) Gogobetetze-inkestan hizkuntzaren erabileraren egokitasunari buruzko galdera txertatuko da. 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Galdetu zaienen artetik, harremana euskaraz izatea adierazi duten erakundeen ehunekoa Aurrekoen artetik euskaraz erantzun zaienen ehunekoa
2.2.2. Idatzizko harreman ofizialak(zerbitzua)	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde guztiekin hizkuntzaren erabilera adostu egingo da zerbitzua eskaintzeko. Azken txostena ele biduna izango da. Zerbitzua euskaraz jaso nahi duten erakundeen erregistroa sortuko da. Gogobetetze-inkestan hizkuntzaren erabileraren egokitasunari buruzko galdera txertatuko da 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Galdetu zaienen artetik, harremana euskaraz izatea adierazi duten erakundeen ehunekoa Aurrekoen artetik euskaraz erantzun zaienen ehunekoa
2.2.3. Idatzizko harreman ez ofizialak(zerbitzua)	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde guztiekin hizkuntzaren erabilera adostu egingo da zerbitzua eskaintzeko. Zerbitzua euskaraz jaso nahi duten erakundeen erregistroa sortuko da. Gogobetetze-inkestan hizkuntzaren erabileraren egokitasunari buruzko galdera txertatuko da 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Galdetu zaienen artetik, harremana euskaraz izatea adierazi duten erakundeen ehunekoa Aurrekoen artetik euskaraz erantzun zaienen ehunekoa

2.3. HORNITZAILEAK

HELBURUA: Innobasquek bere buruari jarritako hizkuntza irizpideak ezarri hornitzaileei.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
2.3.1. Ahozko harremanak (hornitzaileak)	<ul style="list-style-type: none"> Innobasquek markatutako hizkuntza-irizpideak komunikatu Hornitzaileak animatu Innobasqueko solaskidea euskalduna bada, harremanak euskaraz izaten 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Euskarazko harremana izan dugun hornitzaileen ehunekoak
2.3.2. Idatzizko harreman ofizialak(hornitzaileak)	<ul style="list-style-type: none"> Innobasquek markatutako hizkuntza-irizpideak komunikatu Hornitzaileak animatu Innobasqueko solaskidea euskalduna bada, harremanak euskaraz izaten 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzen dituzten hornitzaileen ehunekoak
2.3.3. Idatzizko harreman ez ofizialak(hornitzaileak)	<ul style="list-style-type: none"> Innobasquek markatutako hizkuntza-irizpideak komunikatu Hornitzaileak animatu Innobasqueko solaskidea euskalduna bada, harremanak euskaraz izaten 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzen dituzten hornitzaileen ehunekoak
2.3.4. Kontratazioa(hornitzaileak)	<ul style="list-style-type: none"> Innobasqueko enpresa hornitzaileen kontratazioetan, hizkuntzak garrantzia duen kasuetan, kontratazio-baldintzetan zerbitzua emateko hizkuntza-irizpideak betetzeko derrigortasuna txertatuko da. Hizkuntzak garrantzia ez duen kasuetan baloratu egingo da. 	Zuzendaritza-batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzen dituzten hornitzaileen ehunekoak

2.4. ENTITATE FINANTZARIOAK

HELBURUA: Entitate finantzarioekiko harremanetan euskararen erabilera gehitzea

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
2.4.1. Ahozko harremana (entitate finantzarioak)	<ul style="list-style-type: none"> Solaskideei euskarazko harremanak izateko aukera komunikatu 	Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde finantzarioekin izandako elkarrizketetatik euskaraz izan direnen ehunekoa
2.4.2. Idatzizko harreman ofiziala (entitate finantzarioak)	<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzen diren inprimakiak euskarara egokitu. 	Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.esus	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz erabiltzen diren inprimakien ehunekoa Euskaraz bete diren inprimakien ehunekoa
2.4.3. Idatzizko harreman ez ofiziala (entitate finantzarioak)	<ul style="list-style-type: none"> Solaskideei euskarazko harremanak izateko aukera komunikatu 	Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Izandako idatzizko harremanetatik euskarazkoen ehunekoa

2.5. ADMINISTRAZIOA

HELBURUA: Administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera gehitu

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
2.5.1. Ahozko harremanak (Administrazioa)	<ul style="list-style-type: none"> Euskarazko solaskidetza eskaini administrazio desberdinei (jaurlaritza, Foru Aldundi...) Euskarazko harremana izateko aukera eskaintzen digutenak identifikatu 	Zuzendari nagusia eta Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio desberdinekiko harremanetan euskararen erabileraren ehunekoa
2.5.2. Idatzizko harreman ofizialak (Administrazioa)	<ul style="list-style-type: none"> Zenbait dokumentu euskara hutsean erabiltzeko aukera aztertu. 	Zuzendari nagusia eta Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio desberdinekiko harremanetan euskararen erabileraren ehunekoa
2.5.3. Idatzizko harreman ez ofizialak (Administrazioa)	<ul style="list-style-type: none"> Euskarazko solaskidetza eskaini administrazio desberdinei (jaurlaritza, Foru Aldundi...) Euskarazko harremana izateko aukera eskaintzen digutenak identifikatu 	Zuzendari nagusia eta Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio desberdinekiko harremanetan euskararen erabileraren ehunekoa

2.6. BESTE HARREMAN BATZUK (sektoreko enpresak, patnerrak, ikerketa zentroak, BEC, Euskalduna, kolaboratzaileak...)

HELBURUA: Euskararen erabilera handitzen lagunduko diguten aliantzak bilatu.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
2.6.1. Ahozko harremanak (Bestelakoak)	<ul style="list-style-type: none"> Innobasquek markatutako hizkuntza-irizpideak komunikatu Lankidetza erakundeak animatu Innobasqueko solaskidea euskalduna bada, harremanak euskaraz izaten 	Proiektuetako arduradunak	<ul style="list-style-type: none"> Era honetako erakundeekiko harremanetan euskararen erabileraren ehunekoa
2.6.2. Idatzizko harreman ofizialak (Bestelakoak)	<ul style="list-style-type: none"> Zenbait dokumentu euskara hutsean erabiltzeko aukera aztertu. 	Proiektuetako arduradunak	<ul style="list-style-type: none"> Era honetako erakundeekiko harremanetan euskararen erabileraren ehunekoa
2.6.3. Idatzizko harreman ez ofizialak (Bestelakoak)	<ul style="list-style-type: none"> Innobasquek markatutako hizkuntza-irizpideak komunikatu Lankidetza erakundeak animatu Innobasqueko solaskidea euskalduna bada, harremanak euskaraz izaten 	Proiektuetako arduradunak	<ul style="list-style-type: none"> Era honetako erakundeekiko harremanetan euskararen erabileraren ehunekoa

3. BARNE HARREMANAK

3.1. LANEKO HIZKUNTZA PAISAIA			
HELBURUA: lan-lekuan euskararen presentzia handitu			
ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.1.1. Laneko errotulazio aldakorra	<ul style="list-style-type: none"> • Barneko errotulazio aldakorrerako hizkuntza-irizpideak ezarri eta euskararen presentzia bermatu • Hizkuntza-irizpideen betetze-mailari segimendua egin 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> • Barne errotulazio aldakorrean euskararen presentziaren ehunekoa
3.1.2. Karpetak (artxiboa, intraneta)	<ul style="list-style-type: none"> • Karpententzako etiketak eta horiek erabiltzeko argibide eta irizpideak prestatu eta eskaini. • Segimendua egin 	Intranet proiektu arduraduna , Euskara Batzordeak (laguntza eta segimendua)	<ul style="list-style-type: none"> • Karpetetan euskararen presentziaren ehunekoa
3.1.3. Makinetako errotulazioa (kafe makina, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa hornitzaileei makinak bi hizkuntzatan errotulatzeko eskatu. 	Gosasun proiektu arduraduna (Euskara Batzordea segimendua)	<ul style="list-style-type: none"> • Makinetan euskararen presentziaren ehunekoa

3.2. PERTSONEN KUDEAKETA

HELBURUA: Pertsonen kudeaketarako gaietan euskara txertatu.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.2.1. Pertsonen administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> Nominen plantilak eta edukia bi hizkuntzetan prestatu. Baimen eta dieten orriak euskaraz betetzeko aukera eskaini. Lan-egutegia euskaraz eskaini. Lanpostuen eskaintzak euskaraz egin eta baldintzen artean gomendatutako euskararen ezagutza-maila adierazi. 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Nominen plantilen hizkuntza Nominen edukien hizkuntza Baimen eta dietak euskaraz betetzen dutenen ehunekoa Euskara-baldintza txertatu den lanpostu-eskaintzen ehunekoa Euskara-eskaera betetzen duten pertsonen ehunekoa Kontratatu berrietatik formakuntza-plana dutenen ehunekoa Lan-egutegia euskaraz dagoen
3.2.2. Informazioa / Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> Zuzendaritza-batzordearen eta enpresa-batzordearen jakinarazpenetan euskara lehenetsi. Euskara lehenetsi zirkularretan. 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria (formalak) Harreragilea (informalak)	<ul style="list-style-type: none"> Bidalitako euskarazko komunikazioen ehunekoa Euskaraz bidalitako zirkularren ehunekoa

3.2. PERTSONEN KUDEAKETA

HELBURUA: Pertsonen kudeaketarako gaietan euskara txertatu.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.2.3. Pertsonen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> Harrera-protokoloa euskaraz egiteko aukera eskaini. Harrera-protokoloan ematen den dokumentazioa euskaraz jasotzeko aukera eskaini. Hizkuntza-irizpideak betetzeko derrigortasunari buruzko informazioa eman. 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria..	<ul style="list-style-type: none"> Harrera protokolo osoa euskaraz egin duten pertsonen ehunekoa Harrera-protokoloan euskarak duen pisuaren ehunekoa
	<ul style="list-style-type: none"> Pertsonak garatzeko sisteman euskara kontuan hartzea: fitxa euskaraz eskaini, elkarrizketak euskara egitea sustatu, txostenak euskaraz idatzi... 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Urtean zehar euskaraz betetako fitxa-kopurua

3.3. FORMAKUNTZA

HELBURUA: Euskara kontuan hartzea formakuntzari dagozkion gaietan.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.3.1. Formakuntza, ahozko harremana	<ul style="list-style-type: none"> Pertsonak dituzte beharrak eskatzerakoan zein hizkuntzatan jaso nahi den formazioa. Taldeak aukeren arabera sortu. Barne-formakuntza ere euskaraz eskaintzeko bidea jorratu. Enpresa hornitzaileei ikastaroak euskaraz eskaintzeko aukera eskatu. 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria..	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak euskaraz eskatu duten pertsonen kopurua Ikastaroak euskaraz jaso duten pertsonen kopurua
3.3.2. Formakuntza, dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> Barne-formakuntza euskaraz eskaintzeko dokumentazioa ere euskaraz eskaini Enpresa hornitzaileei dokumentazioa euskaraz egon dadila eskatu. 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria..	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentazioa euskaraz jasotzea eskatu duten pertsonen kopurua Dokumentazioa euskaraz jaso duten pertsonen kopurua
3.3.3. Ikastaroen kudeaketa (eskaera, gogobetetzea...)	<ul style="list-style-type: none"> Urteko formazio-eskaintza bi hizkuntzetan bidali. Eskatzen den ikastaro bakoitzean lehenetsitako hizkuntza jaso. Ikastaroen ondorengo gogobetetze-inkesta ele bietan bidali 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Eskaera euskaraz bete duten pertsonen kopurua Gogobetetzen inkestan hizkuntzaren atala gaizki baloratu duten pertsonen kopurua

3.4. BALIABIDE INFORMATIKOAK (SOFTWAREA)

HELBURUA: Euskara txertatu Innobasqueko softwarean.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.4.1. Software estandarra	<ul style="list-style-type: none"> Sistema eragilea eta ofimatika euskaraz eskaini. 	Administrazioa eta Finantza zuzendaria eta Informatika arduraduna.	<ul style="list-style-type: none"> Euskarara aldatutako ordenagailu-kopurua
3.4.2. Enpresak berak egokitutako softwarea (CRM, Networking, ...)	<ul style="list-style-type: none"> Erakundearentzako sortu edo egokitzen den softwarea bi hizkuntzatan erabiltzeko aukera izan dezala. 	Webmaster eta IKT arduraduna.	<ul style="list-style-type: none"> Aplikazio guztiekiko euskaraz erabil daitezkeen en ehunekoak Aplikazio guztiekiko euskaraz erabiltzen diren en ehunekoak

3.5. KOMUNIKAZIO HORIZONTALA ETA BERTIKALA

HELBURUA: Ezagutzak eskaintzen dituen aukerak erabili euskararen erabilera handitzeko.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.5.1. Ohiko hizkera-maila	<ul style="list-style-type: none"> Gosaltegiak, bazkaltegiak... Eusle metodologian oinarritutako ekimenak abian jarri Euskaraz egiteko gonbitea luzatuko duten adierazleak: Txantxangorria bezalakoak 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Adierazleren bat jartzea aukeratu duten pertsonen kopurua Euskara Batzordeak antolatutako ekintzetan parte hartzen dutenen ehunekoa Harreman informaletan euskarak izan duen bilakaera
3.5.2. Ohiko erabilera (idatziz)	<ul style="list-style-type: none"> E-mailaren sinaduretan euskaraz egiteko gonbitea luzatu Formakuntza-pilulatxoak 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Bidalitako pilularen kopurua
3.5.3. Erabilera teknikoa (ahoz)	<ul style="list-style-type: none"> Aukera ematen duten lantaldeetan euskara lan-hizkuntza izateko aukera jorratu: azterketa komunikatiboa eta ezarpenerako neurriak Bileretarako hizkuntza protokoloa zehaztu eta ezarri Euskaraz lan egiteko baldintzak sortzea Bilera zein hizkuntzatan egin den aktan jaso. Bilera euskaraz egiteko gonbitea luzatuko duten txartelak jarri bilera-geletan: "Egingo dugu bilera euskaraz?" 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Maila teknikoan egiten den euskararen erabilerearen bilakaera

3.5. KOMUNIKAZIO HORIZONTALA ETA BERTIKALA

HELBURUA: Ezagutzak eskaintzen dituen aukerak erabili euskararen erabilera handitzeko.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.5.4. Erabilera teknikoa (idatziz)	<ul style="list-style-type: none"> Aukera ematen duten lantaldeetan euskara lan-hizkuntza izateko aukera jorratu: azterketa komunikatiboa eta ezarpenerako neurriak Bileran bietan egin bada, akta bi hizkuntzatan jaso. Euskaraz egiten diren bileren aktak euskaraz egitea Bilera-deiak euskaraz erredaktatzea, Dokumentazioa euskaraz erredaktatzea. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz bidaltzen diren e-mailen ehunekoa Euskaraz bidaltzen diren txostenen ehunekoa
3.5.5. Bilera orokorrak (ahozkoa)	<ul style="list-style-type: none"> Sarrera eta amaiera euskaraz egin. Azalpenak gaztelaniaz ematen badira proiektzioak euskaraz jarri. Bileraren hasieran galderak euskaraz egiteko aukera eskaini. Galderak egindako hizkuntzan erantzun. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Hasierako eta bukaerako agurra euskaraz egin den Hizketa/aurkezpen irizpidea bete den Galderak euskaraz egiteko aukera egin den Euskaraz egindako galderen kopurua
3.5.6. Bilera orokorrak (dokumentazioa)	<ul style="list-style-type: none"> Azalpenak gaztelaniaz ematen badira proiektzioak euskaraz jarri. Azalpenak euskaraz ematen badira proiektzioak gaztelaniaz jarri. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Hizketa/aurkezpen irizpidea bete den

3.6. ESTRATEGIA / KUDEAKETA

HELBURUA: Hizkuntza-politika erakundearen estrategian eta kudeaketarako-erremintetan txertatu.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
3.6.1. Antolaketa eta estrategia	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza Politika eta horren garapenarekin zerikusia duten gaiak erakundearen kudeaketarako erremintetan txertatu (plan estrategikoa, kudeaketa-plana, etab). 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa-planak hizkuntzaren gaia txertatuta dagoen
3.6.2. Araudi esparrua	<ul style="list-style-type: none"> Erakundearen araudiak jasotzen dituzten dokumentuak ele bietan jarri 	Administrazioa eta Finantza zuzendaria	<ul style="list-style-type: none"> Araudietan euskararen presentziaren ehunekoa
3.6.3. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa	<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa-finantzarioarekin zerikusia duten dokumentuak ele bietan argitaratu 	Administrazioa eta Finantza zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Azken dokumentazioan euskararen ehunekoa

4. HIZKUNTZEN KUDEAKETA

4.1. HIZKUNTZA-POLITIKA

HELBURUA: Hizkuntza-politika erakundearen kudeaketarako-erremintetan txertatu

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
4.1.1. Badago hizkuntza-irizpideak jasotzen dituen dokumentua	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak jasoko dituen dokumentua adostu eta onartu 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez
4.1.2. Hizkuntza-irizpideak erakundeko pertsonen artean zabaldu dira	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideen dokumentuaren zabalkundea egin erakundearen barruko pertsoneri eta kanpoak egon daitezkeen interesdunei. 	Euskara batzordea (landu) Zuzendaritza (erabaki)	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez
4.1.3. Segimendua egiten zaie hizkuntza-irizpideei eta emaitzen arabera neurriak hartzen dira	<ul style="list-style-type: none"> Irizpideen betetze-mailari segimendua egin. Irizpideak bete ez diren kasuak jaso. Egokiak izan daitezkeen neurri zuzentzaileak proposatu. Zuzendaritza-batzordeari komunikatu urtean zehar egin diren hutsegiteak eta proposatutako neurriak 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez Lorpen-mailaren arabera irizpideak eguneratzen dira Bai/ez irizpideak erakundearen prozesu-sistemetan txertatuta daude
4.1.4. Euskara-planaren helburuei segimendua egiten zaie eta emaitzen arabera neurriak hartzen dira	<ul style="list-style-type: none"> Euskara-planaren helburuen betetze-mailari segimendua egitea Neurri zuzentzaileak proposatu eta gauzatzea Zuzendaritza Batzordeari segimenduaren eta proposatutako neurri zuzentzaileen berri eman. 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez segimendua egin da Gauzatutako neurri zuzentzaileen kopurua Bai/ez, zuzendaritzari azaldu zaizkio

4.2. PERTSONAK

HELBURUA: Euskara lan-hizkuntza izan dadin neurri eraginkorrak ezarri.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
4.2.1. Innobasqueko pertsonak duten hizkuntza-mailaren datua jasota dago	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen ezagutza-mailaren errolda egunean izan. Pertsonen Garapenerako Sistema (SDP) osatzerakoan hizkuntza-ezagutzaren datua jaso. 	Korporatiboa eta Komunikazioa Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez, badago erroldarik Bai/ez eguneratzen da Bai/ez, jarritako helburuak betetzen dira
4.2.2. Euskararen ezagutza kontuan hartzen da kontratazioetan, bekadunak barne.	<ul style="list-style-type: none"> Lanpostu bakoitzak izan beharko lukeen euskara-maila jaso. Proposamena da gutxieneko maila C1 (EGA) izatea. Lan-eskaintzatan euskara-mailaren baldintza jaso. Kontratatuko den pertsonak, lanpostuari dagokion euskara-maila akreditatu beharko du, ziurtagiri bidez, edo sarrera-azterketan erakutsitako mailaren bidez. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Kontratatu berrietan hizkuntza-perfila betetzen dutenen ehunekoa Formazio-plana ezarri zaien pertsonen ehunekoa Formazio-planaren aurreikuspenak betetzen dituzten pertsonen ehunekoa
4.2.3. Euskaraz egindako lana aintzatesten da	<ul style="list-style-type: none"> Innobasqueko pertsonak euskaraz eta euskararengatik egindako lana eta ahalegina aitortzeko bideak ezarri. Promozioetan lanpostu berriari dagokion euskara-maila akreditatu beharko da Talde aldaketetan baloratu egingo da. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez, lana euskaraz egin den jasotzen da Bai/ez norbaiti aitortu zaio egindako esfortzua

4.2. PERTSONAK

HELBURUA: Euskara lan-hizkuntza izan dadin neurri eraginkorrak ezarri.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
4.2.4. Zuzendariak eta barneko arduradunek Hizkuntza Politika barneratzen dute eta beren jarduerarekin horren eredu dira.	<ul style="list-style-type: none"> Euskara Planaren garapenaren eta burututako ekimenen berri eman Zuzendaritza batzordeari. Zuzendaritzak euskarari babesa emango dio eta antolatzen diren ekimenetan parte hartuko dute: Euskararen Eguna, Korrika... 	Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> Euskara ikasten duten zuzendaritzako pertsonen kopurua Bere lana euskaraz egiten duten zuzendarien kopurua Hizkuntza irizpideak betetzen duten zuzendarien kopurua

4.3. BALIABIDEAK

HELBURUA: Euskarari eta bere eraginari zuzendutako baliabideen egokitasuna baloratu.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
4.3.1. Euskara-planaren koordinatzailea izendatuta dago eta bere funtzioa betetzen du	<ul style="list-style-type: none"> Euskara Plana koordinatuko duen eta euskararen erreferente izango den pertsona izendatu. Pertsona hori ezaguna izango da enpresan, prestijioa duena eta erakundearen eremu guztietara iristeko ahalmena izango du. Koordinatzaileak ordu-poltsa bat izango du zeregin hauetarako. 	Administrazioa eta Finantza Zuzendaria. eta Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona horrek urtean zehar euskarari eskainitako ordu-kopurua
4.3.2. Hizkuntza-irizpideak betetzen direla eta planaren helburuak betetzeko neurriak gauzatzen direla zaintzen duen batzordea dago	<ul style="list-style-type: none"> Euskara Batzordeak ordu-poltsa bat izango du dagozkion zereginak betetzeko. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza batzordean ordezkaturako sail-kopurua Euskararen alde egindako ekintzen balorazioa (ikus ekintzaren fitxa)
4.3.3. Euskara-planaren bidez martxan jartzen diren neurriek eragiten duten pertsona-kopurua	<ul style="list-style-type: none"> Lehiaketa. Euskararen nazioarteko Eguna. Euskara-maila desberdinak identifikatzeko txartelak. 	Euskara Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> Guztira planaren ekintzek eragiten dituzten pertsonen ehunekoa
4.3.4. Euskara-planak eragingo dituen gastuei aurre egiteko poltsa jasotzen da urtero	<ul style="list-style-type: none"> Urteroko aurrekontuetan euskara-planak eragindako gastuentzako diru-poltsa gordeko da. 	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Bai/ez, aurrekontuetan badu kapitulua
4.3.5. Euskara planaren helburuak lortzen lagunduko diguten aliantzez baliatzen gara Planaren helburuak lortzeko	<ul style="list-style-type: none"> Euskara-planak jasotako helburuak lortzen lagunduko diguten aliantzak bilatuko ditugu. 	Lankidetzaren Zuzendaria berrikuntza	<ul style="list-style-type: none"> Urtean zehar izandako harremanen kopurua

4.3. BALIABIDEAK

HELBURUA: Euskarari eta bere eraginari zuzendutako baliabideen egokitasuna baloratu.

ITEMA	NEURRIA	ARDURADUNA	ADIERAZLEA
4.3.6. Hizkuntzaren normalizazioa erraztuko duten teknologia, jakintza eta erremintak bilatu eta Innobasque ko pertsonen esku jartzen ditugu	<ul style="list-style-type: none"> • Merkatuan, interneten eta abarretan aurki daitezkeen baliabideen zaintza egingo dugu eta egokiak direnak erakundeko pertsonen esku jarriko ditugu. 	Administrazioa eta Finantza Zuzendaria.	<ul style="list-style-type: none"> • Bai/ez, baliabideak pertsonen eskura jarri dira



7.2.- Kronograma

EKINTZAK	URTEAK		
	2016	2017	2018
1.1.1. Kanpo errotulazio finkoa			
1.1.2. Harrera-lekuko eta barne-bulego/sailtako errotulazio finkoa			
1.1.3. Papertegia eta zigiluak			
1.1.4. Webgunea eta sare sozialak			
1.1.8. Marketina eta publizitatea			
1.1.9. Irudi korporatiboaren osagaiak			
1.2.1. Harrera telefonikoa			
1.2.2. Aurrez aurreko harrera			
1.2.3. Telefono deiak beste norbaiti zuzentzea			
1.2.4. Harrera automatizatua: erantzungailu automatikoa			
2.1.1. Ahozko harremanak (bezeroak)			
2.1.2. Idatzizko harreman ofizialak(bezeroak)			
2.1.3. Idatzizko harreman ez ofizialak(bezeroak)			
2.2.1. Ahozko harremanak (zerbitzua)			
2.2.2. Idatzizko harreman ofizialak(zerbitzua)			
2.2.3. Idatzizko harreman ez ofizialak(zerbitzua)			
2.3.1. Ahozko harremanak (hornitzaileak)			
2.3.2. Idatzizko harreman ofizialak(hornitzaileak)			
2.3.3. Idatzizko harreman ez ofizialak(hornitzaileak)			
2.3.4. Kontratazioa(hornitzaileak)			
2.4.1. Ahozko harremana (entitate finantzarioak)			
2.4.2. Idatzizko harreman ofiziala (entitate finantzarioak)			
2.4.3. Idatzizko harreman ez ofiziala (entitate finantzarioak)			

EKINTZAK	URTEAK		
	2016	2017	2018
2.5.1. Ahozko harremanak (Administrazioa)			
2.5.2. Idatzizko harreman ofizialak (Administrazioa)			
2.5.3. Idatzizko harreman ez ofizialak (Administrazioa)			
2.6.1. Ahozko harremanak (Bestelakoak)			
2.6.2. Idatzizko harreman ofizialak (Bestelakoak)			
2.6.3. Idatzizko harreman ez ofizialak (Bestelakoak)			
3.1.1. Laneko errotulazio aldakorra			
3.1.2.a. Karpetak (artxiboa)			
3.1.2.b. Karpetak (intraneta)			
3.1.3. Makinetako errotulazioa (kafe makina, etab.)			
3.2.1. Pertsonen administrazioa			
3.2.2. Informazioa / Komunikazioa			
3.2.3. Pertsonen kudeaketa			
3.3.1. Formakuntza orokorra, ahozko harremana			
3.3.2. Formakuntza orokorra, dokumentazioa			
3.3.3. Ikastaroen kudeaketa (eskaera, gogobetetzea...)			
3.4.1. Software estandarra			
3.4.2. Enpresak berak egokitutako softwarea			
3.5.1. Ohiko hizkera-maila			
3.5.2. Ohiko erabilera (idatziz)			
3.5.3. Erabilera teknikoa (ahoz)			
3.5.4. Erabilera teknikoa (idatziz)			
3.5.5. Bilera orokorrak (ahozkoa)			
3.5.6. Bilera orokorrak (dokumentazioa)			
3.6.1. Antolaketa eta estrategia			
3.6.2. Araudi esparrua			
3.6.3. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa			

EKINTZAK	URTEAK		
	2016	2017	2018
4.1.1. Badago hizkuntza-irizpideak jasotzen dituen dokumentua			
4.1.2. Hizkuntza-irizpideak erakundeko pertsonen artean zabaldu dira			
4.1.3. Segimendua egiten zaie hizkuntza-irizpideei eta emaitzen araberako neurriak hartzen dira			
4.1.4. Euskara-planaren helburuei segimendua egiten zaie eta emaitzen araberako neurriak hartzen dira			
4.2.1. Innobasqueko pertsonak duten hizkuntza-mailaren datua jasota dago			
4.2.2. Euskararen ezagutza kontuan hartzen da kontratazioetan, bekadunak barne.			
4.2.3. Euskaraz egindako lana aintzatesten da			
4.2.4. Zuzendariak eta barneko arduradunek Hizkuntza Politika barneratzen dute eta beren jarduerarekin horren eredu dira.			
4.3.1. Euskara-planaren koordinatzailea izendatuta dago eta bere funtzioa betetzen du			
4.3.2. Hizkuntza-irizpideak betetzen direla eta planaren helburuak betetzeko neurriak gauzatzen direla zaintzen duen batzordea dago			
4.3.3. Euskara-planaren bidez martxan jartzen diren neurriek eragiten duten pertsona-kopurua			
4.3.4. Euskara-planak eragingo dituen gastuei aurre egiteko poltsa jasotzen da urtero			
4.3.5. Euskara planaren helburuak lortzen lagunduko dituzten aliantzez baliatzen gara Planaren helburuak lortzeko			
4.3.6. Hizkuntzaren normalizazioa erraztuko duten teknologia, jakintza eta erremintak bilatu eta Innobasqueko pertsonen esku jartzen ditugu			